



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Diziplina eta Lizentzietako Arkitekto Teknikari plaza bat (1) betetzeko, derri-gorrezko 2. hizkuntza eskakizuna duena, hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izengaien behin-betiko zerrenda onartzea.

Alkate jaunak, 2023ko uztailaren 21ean, Alkatetza 2866/2023 Dekretua eman du. Ebazpen horrek honako hau dio:

Lehenengoa: Diziplina eta Lizentzietako Arkitekto Teknikari plaza bat (1) betetzeko, derrigorrezko 2. hizkuntza eskakizuna duena, hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izengaien behin-betiko zerrenda onartzea.

DIZIPLINA ETA LIZENTZIETAKO ARKITEKTO TEKNIKARI PLAZA BAT (1) BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUAN ONARTUTAKO IZENGAIEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA (D 2HE)

NAN	1 abizena	2 abizena	Izena	Puntuazioa guztira autobalorazio formularioaren behin-behinekoa
*****20K	JUAREZ	TRASCASA	LORENA	99,56874
*****67K	MARTIN	CEDIEL	ZALOA	81,51336
*****93B	GARCIA	ESPARTA	AITOR	80
*****89F	MENDIZABAL	CORCHÓN	ITSASO	80
*****93Y	OAR	URIBARRI	ENEKO	80
*****49R	URIARTE	LARREA	ANA MARIA	80
*****07S	VITORIA	GARCÍA	MARÍA ETHEL	80
*****67C	GARCIA	FERNANDEZ	ARANTZA	69,6488
*****94N	UNAMUNO	REMENTERIA	ANE	61,374

Bigarrena: Hautaketa-prozesu honetarako kalifikazio-epaimahaia izendatzea. Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako Saileko diputatuaren martxoaren 8ko 1807/2023 Foru Aginduan izendatutako pertsonak osatuko dute epaimahaia, Bizkaiko Foru Aldundiak toki-erakunde honekin egindako kudeaketa-gomendioari jarraiki:

- Presidentea:
 - Titularra: María Uribe Guerendiain.
 - Ordezkoa: Marta Vielba Postigo.
- Idazkaria:
 - Titularra: Encarnación Martínez Zamora.
 - Ordezkoa: María Elena Iturrizaga Larrabeiti.
- Batzorkideak:
 - Titularra: Oihana Ariznabarreta Bergareche.
 - Ordezkoa: José Arriola de la Vega.
 - Titularra: Amaia Aramburu Larrea.
 - Ordezkoa: Aitor Ortega Ruiz.
 - Titularra: María Isabel Zarraga Buzeta.
 - Ordezkoa: Josu Martínez Serrano.
- IVAP:
 - Titularra: Manuel B. González Abrisqueta.
 - Ordezkoa: Pilar Goitia Salvatierra.



Epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu, eta hautagaiek errefusatu ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean.

Hirugarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta udal honen web orrian argitaratzeko agintzea.

Laugarrena: Onarpenak ez du esan nahi prozesua izapidetzen ari den bitartean baztertuak ez izateko eskubidea eskuratu denik, proba guztiak egin diren ala ez alde batera utzita, baldin eta, aurkeztutako datuak edo dokumentazioa egiaztatzearen ondorioz, hautapen-prozesuan onartzeko eta parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ez dituela ikusten bada. Kasu horretan, epaimahai jarduleak baztertzeko proposamena egingo du, interesdunari entzun ondoren, Alkatetza Lehendakariak dagokion ebazpena eman dezan.

Bostgarrena: Ebazpen honen aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio udalbatzako alkate-udalburuari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean inpugnatu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen denetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Basaurin, 2023ko uztailaren 26an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren